

ENPRESETAN PERTSONEN PARTAIDETZA SUSTATZEKO PROGRAMA

XEDEA: Programaren helburua da kalitatezko enplegua sustatzea, enpresen errotea, lehiakortasuna, bere jarraitasuna eta jasangarritasuna eta enpresetan pertsonen partaidetza aktibo, eraginkor eta erantzunkide baten bitartez.

ONURADUNAK:

Gipuzkoan dauden enpresak eta elkarte enpresarialak.

Gipuzkoako erakunde eta/edo elkarte estrategikoak, hezkuntza izaera, izaera ekonomiko-soziala eta tokiko eta/edo eskualdeko izaera dutelarik, zona bateko edo jarduera ekonomiko bateko agente egokiak edo funtsezkoak biltzen dituztenak, baldin eta horiek ikuspegi integrala garatze aldera elkarlanean aritzeko interesa badute eta ikuspegi integral hori garapen pertsonal, ekonomiko eta sozialaren aldeko konpromisoan oinarritzen bada.

PROIEKTU MOTAK:

Diruz laguntzeko moduko jarduketak izango dira:

II. Eranskina: Ezartzeko prozesuak.

III. Eranskina: Ikerketakoak eta arlo hauen garapenekoak: tresnak, metodologiak, lanabesak, ebaluazio sistemak, hedapena, sozializazioa eta balorizazioa, eta esperimentazioa:

- Partaidetza, kudeaketan
- Partaidetza, erabaki estrategikoetan
- Partaidetza, emaitzetan
- Partaidetza, kapitalean

Proiektu horiek proposatu eta garatu daitezke helburu hauek dituen jarduketa batetik: sendotzea eta garatzea antolakuntza-eraldaketa, lehiakortasuna eta jasangarritasuna, jarraitutasuna eta belaunaldi aldaketa, transmisioa, gizarte ekonomia, eta baita enpresa-berregituratze eta berrabiatze beraraino ere.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Dirulaguntzak ehuneko hauek izango dituzte. kostu hautagarrien %75koak II. Eranskineko jarduera hautagarrietan, pertsonen partaidetzako enpresa ereduak bultzatzea, eta kostu hautagarrien %100, berriz III. eranskineko jarduera hautagarrietan, pertsonetan oinarritutako enpresa ereduaren garapena aldeztu duen ekosistema bat bultzatzea.

PROIEKTUAK HASTEKO ETA EXEKUTATZEKO EPEA:

Diruz lagundutako jarduerak diru-laguntza eskaera aurkeztu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan, eta 2021eko ekainaren 30erako bukatu behar dira.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPA ETA TOKIA:

Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskera inprimakiak eskuragarri egongo dira Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneke eta Lurralde Orekako Departamentuaren web orrian, <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak>.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da eta **2020ko irailaren 8an**, eguerdiko 12:00etan bukatuko da.